

DOKTOREAK PRESTATZEKO LAGUNTZEN DEIALDIA 2015 (MINECO)

Doktoreen prestakuntza sustatzeko xedea du deialdiak, tesia egiteko lau urteko iraupena izango duten lan-kontraktuak finantzatuz, hain zuzen.

Hautagaiak:

2015/2016 ikasturterako Doktoretza programa batean onartuta edo matrikulatuta daudela egiaztatu beharko dute hautagaiok eskabideak aurkeztean.

Laguntzak:

Tesia egiteko helburuarekin, lau urteko iraupena izango duten 1.108 laguntza emango dituzte, gehienez. Kasu honetan, eskatzaileek euren tesiak garatu beharko dituzte "Generación de Conocimiento" edo "Retos de la Sociedad" delako azpiprogrametako 2014ko deialdian emandako proiektuei lotuta. Hautatuko proiektuen zerrenda [esteka](#) honetan dago kontsultagai.

Eskabideak aurkezteko epea:

2015eko ekainaren 15etik 29ko 15:00 arte (biak barne)

UPV/EHU barne izapideak:

Kasu honetan, hautagaiak zuzenean aurkeztu beharko dituzte euren eskabideak. Izan ere, deialdiaren lehenbiziko fase honetan, eskatzaileek ez dute Ikerketaren Arloko Errektoreordetzan baimenik eskatu behar.

Kontaktua:

Kontsultak MINECOri luzatuko zaizkio zuzenean. Telefonoz 902.218.600 eta 911.754.175 zenbakietara deituz edo posta elektronikoz txantilo [hau](#) betez kontsulta administratiboak egiteko edo beste [hau](#) kontsulta informatikoak helarazteko.

Informazio gehiago:

Ohiko galdera administratibo edota informatikoen zerrenda eguneratuak izango dituzte kontsultagai eskatzaileek hurrengo esteka honetan:

<http://www.idi.mineco.gob.es/portal/site/MICINN/menuitem.dbc68b34d11ccbd5d52ffeb801432ea0/?vgnnextoid=fed2bf0be2c6d410VgnVCM1000001d04140aRCRD>